



## **GIPUZKOAKO HIRI-HONDAKINEN AZPIEGITUREI BURUZKO LURRALDEKO ARLO-PLANAREN ALDAKETARI DAGOKION INGURUMEN-IKERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENEO DOKUMENTUA**

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 6.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta Euskadiko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 lege orokorreko 41. artikuluan eta Plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturei buruzko Lurraldearen Arloko Plana (LAP) aldatzeko ezinbestekoa da ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arrunta gauzatzea.

Horri dagokionez, eta abenduaren 9ko 21/2013 legeko 18. artikuluan, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikuluan xedatzen denez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lan Hidraulikoen Sailak, 2017ko apirilaren 6an, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arrunta abiarazteko eskatu du, Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturei buruzko LAP planaren aldaketaren aurrerapena eta hartako hasierako dokumentu estrategikoa (aurrerantzean HDE) atxiki ditu. Eskaera eta dokumentazio horrekin bat etorriz, ingurumen arloko organoak, aldez aurretik eragindako administrazioei eta interesdunei kontsulta egin ondotik, irismeneko dokumentua igorri behar du, LAP planaren aldaketa prestatzerakoan ingurumen arloko alderdiak txertatu eta ingurumen-ikerketa estrategikoak (IIE) izan behar duen hedadura, xehetasun-maila eta espezifikotasun-maila zehazteko xedez.

Horrenbestez, otsailaren 27ko 3/1998 legeko 44. artikulua aplikatuz, eta uztailaren 19ko 22/2016 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusi honek Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturei buruzko LAP plana aldatzeko IRISMENEO DOKUMENTU hau igortzen du, aldi berean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan barneratzen den erreferentziako dokumentua dena, baldintza hauekin:

### **1. LAP PLANA ALDATZEKO AURRERAPENEAN BARNERATUTAKO PROPOSAMEN NAGUSIAK ETA HARTAKO HASIERAKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOA**

Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturei buruzko LAP plana uztailaren 21eko 24/2009 Foru Dekretuz onartu zen behin betikoz, etorkizunean Gipuzkoan hondakinak kudeatzeko beharrezkoak diren azpiegituren lokalizazioa jasotzeko helburu orokorrekin, Gipuzkoako Hiri-hondakinen Kudeaketarako Osoko Planean (GHHKPO) eta hartako Aurrerapen Dokumentuan (AD) zehaztutako helburuei erantzute aldera.

LAP plana onartu denetik igarotako denboran azpiegituren kokapen zenbait aldatzeko (baztertu, birkokatu edota ordezkatu) premia hauteman da, izan ere, lekuan bertan egindako xehetasuneko ikerketak egin ondotik desegokitzen jo dira irizpide geotekniko eta geologikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta kudeaketakoak aintzat hartuz.

Modu horretan, aurrerapenean eta LAP plana aldatzeko ingurumen-ebaluazio estrategikorako HDE dokumentuan ezartzen denez, LAP planean ezartzen zen moduan, hondakinen kudeaketarako azpiegiturak lurraldean kokatu eta txertatzeko ingurumen arloko erreferentziako irizpide orokorra azpiegiturretan eta haiekin lotutako garraioetan kalteak ahalik eta gehien murriztekoa izango da. Hala, lokalizazio eta diseinu zenbait egokitu egingo dira babestutako zonaldeak edo flora edo faunari oso habitat natural interesgarriak dituzten zonaldeak eta haietako barneko konexioak, ingurumen aldetik sentisiblerik diren zonaldeak, paisaia-kalitatezko zonaldeak, kultura ondareko zonaldeak edota arriskuak izan ditzaketen



lekuak (ura pilatu daitekeen lekuak edo malda pikoko zonaldeak) ahalik eta gutxien oztopatu ditzaten, edozein kasutan, giza osasunerako eta ingurumenerako baldintza egokiak ziurtatuz.

Aurrekoa zehaztuz, aldaketak ingurumen arloko abiapuntuzko baldintzatzaile hauek baitaritzen ditu, LAP planean eta EAeko Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Planean (2020) ezarritakoak, azpiegiturei dagokienez lokalizazioa aldatzea eskatzen duten alternatiben hautaketan:

- Baztertu egiten da azpiegiturak kokatzea Babes Bereziko lur urbanizaezinezko eremuetan, DOT dokumentuetan kategoria horri ematen zaion definizioa kontuan hartuz; babestutako espazio naturaletan eta Red Natura 2000 eremuetan; DOT dokumentuetan natura-interes modura zehaztutako eremuetan; «interes bereziko eremu» edo «banaketa naturaleko eremu» modura identifikatutako eremuetan; mehatxatutako flora eta faunako espezieak kudeatzeko planetan; EAeko zonalde hezeetako LAP planean zehaztutako hezeguneetan; plan hidrologikoetako babespeko zonaldeetako erregistroko zonaldeetan; akuiferoak kutsatzeko zaurgarritasun handiko zonaldeetan; EAeko Korridore Ekologikoen Sarea izeneko dokumentuan zehaztutako eremu nukleo nahiz korridoreetan eta lotura-eremuetan; 500 urteko birgertatze-aldiko uholde-zonaldeetan; etab.
- Zonalde zenbait ez erabilgarritzat jotzen dira haietarako plan hauetan ezarritako baldintzatzaileen arabera: EAeko ibai eta erreka ertzak antolatzeko LAP plana, zonalde hezeen LAP plana, Nekazaritza eta Basozaintzari buruzko LAP plana, kostaldea babestu eta antolatzeko LAP plana, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura Ondasunari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatua.
- Azpiegiturak lokalizatzeko irizpide modura, beste batzuen artean, ezartzen da zonalde degradatuak aintzat hartzea, espazio horiek birgaitu eta berrezartze aldera.

Halaber, baldintzatzaile funtzional (tekniko eta ekonomikoak) nahiz lurraldeko zenbait hartzen dira kontuan: Komunikazio-saretik hurbil egotea, lurralde plangintzako zehaztapenekin bat etortzea, zerbitzuak eskuragarri izatea, aukerarako sinergiak izatea, etab.

Aurreko guztiarekin bat etorritik, aldaketak hurrengo aldaketak planteatzen ditu indarreko LAP planean jasotakoarekin alderatuz:

- **Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa (Zepak heltzeko planta):** Zepak heltzeko planta Artzabaleako Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroko (orain Gipuzkoako Ingurumen Konplexua 1 fasea -GIG1- deritzona) plataforma modura barneratzen zen LAP planean. Plataforma hori masa lerrakor batzuen gainean egindako lur-erazketa batzuek eta faila batek inguratzen zuten. Hala, ikerketa geologikoak egin ondotik, ez zen lur-erazketen egonkortasun geologikoa bermatzen % 100ean. Horrenbestez, ezinbestekoa da azpiegitura hori kokatzeko beste alternatiba bat bilatzea.

GIG gunea kudeatzeko prozesukoa den instalazio bat denez, haren itxiera izaki, zepak heltzeko planta hurbileko zonalde batean finkatu behar da. Horrenbestez, alboko D partzelan, Eskuzaitzeta poligonotik gertu, finkatzearen alde egiten da. Industrialde horretan ingurumen eta gizarte arloko eragina baxua da eta hirigintza arloko plangintzarekin baliokidea (Eskuzaitzetako Plan Partziala) da.

- **Konpost-plantak:** LAP planean ezarritako konpost-plantak, Lapatxeko zabortegean (Urola Erdiko Mankomunitatea) eta Epeleko hondakin motelen zabortegearen (Debagoieneko Mankomunitatea) alboko lur-eremuan kokatuak, mantendu egiten dira.

Donostialdea-Bidasoa eremuko konposta- edota biometanizazio-plantari dagokionez, Zaldunbordan (Hondarribia) kokatzea baztertu egiten da LAP planean halaxe zehaztu aurren, izan ere, kokapen kutsagarria denez zailtasun administratibo eta teknikoak daude,



eta horrek konpost-plantaren eraikuntza atzeratzea ekarriko luke, eta gainera Zaldunborda eskualdetako hondakinak sortzeko grabitate-zentrotik kanpo kokatzen da, eta horrek kudeaketari dagozkion kostuak areagotzea eragingo luke.

Bere behin betiko kokapena zehazte aldera, balizko 3 lokalizazio aukera planteatu eta aztertu dira, goran alternatibak hautatzeko adierazitako irizpideak kontuan hartuz, guztiak Donostiako udal barrutiaren barnean: 1. alternatiba – Lasarte-Donostialdea Hirukia; 2. alternatiba – Eskuzaitzetako D partzela, zepak heltzeko plantaren alboan; eta 3. alternatiba – Loistegikogaineko partzela.

HDE dokumentuan ingurumena, lur-eremua eta alderdi tekniko eta ekonomikoak aintzat hartuz egokitasun-maila aztertu ondoren, 2. alternatiba, Eskuzaitzetako D partzela, identifikatzen da onuragarriena bezala.

- **Transferentziaguneak (TG):** Gipuzkoan hiri-hondakinen altako garraio aldetiko beharrianak egokitzeko xedez, eta egun dauden transferentziagune ezberdinen eta LAP planean aurreikusitako enpresa eta GIG guneko azken instalazioen artean dagoen hurbiltasuna eta kilometro kopurua aztertu ondoren, LAP planean aldaketak zera planteatzen du:

- LAP planean Elgoibarreko (Debabarrenako Mankomunitatea) transferentziagunea jasotzea, 2013ko uztailan jarri zena martxan eta gaur egun mankomunitatearen kudeaketa arloko beharrianak betetzen dituen, Urola Kosta, Debagoiena eta Urola Erdiko mankomunitateei ere transferentzia-zerbitzuko estaldura emanez.
- Aurrekoa kontuan hartuz, LAP planetik kanporatzea Akei (Debagoieneko Mankomunitatea), Mutriku eta Eibarreko (Debabarrenako Mankomunitatea) transferentziaguneak eta Urola Erdiko (Lapatxeko zabortegia) eta Urola Kostako (Urtetako zabortegia) mankomunitateetan aurreikusitakoak.
- LAP planean Arason (Txingudiko Mankomunitatea) dagoen transferentziagune eta truke-plataforma jasotzea, GIG gunea martxan jarri arte, orduan aurrera plangintzatik baztertuko litzatekeelarik, izan ere, bi instalazioak elkarrengandik hurbil eta kilometro gutxira daudenez, ez luke justifikaziorik izango altako garraioari lotuta jarraitzea.
- LAP planetik Sanmarko Mankomunitatean dagoen transferentziagunea kanporatzea behin GIG gunea martxan jarri ostean, izan ere, une horretatik aurrera, bi instalazioak elkarrengandik hurbil eta kilometro gutxira daudenez, ez luke justifikaziorik izango altako garraioari lotuta jarraitzea.
- Sasietako Mankomunitaterako proposatutako transferentziagunearen kokapena aldatzea, izan ere, eskualdean bio-hondakinak kudeatzeko premia berrien ondorioz ezinbestekoa da LAP planean lokalizazio horretarako (Sasietako zabortegira erantsitako zonaldea) egun jasotzen dena baino azalera gehiago izatea.

Bere behin betiko kokapena zehazte aldera, balizko hiru lokalizazio aukera planteatu eta aztertu dira, goran alternatibak hautatzeko adierazitako irizpideak kontuan hartuz: 1. alternatiba – Altuneko Industrialdea (Olaberria); 2. alternatiba – Partzela Alegi auzoan (Ormaiztegi); eta 3. alternatiba – Partzela Sasietako zabortegian.

HDE dokumentuan ingurumena, lur-eremua eta alderdi tekniko eta ekonomikoak aintzat hartuz egokitasun-maila aztertu ondoren, 3- alternatiba, Sasietako zabortegiko partzela, identifikatzen da onuragarriena bezala.

- **Eraikitze- eta eraiste-hondakinen plantak (Arizmendiko zabortegia Donostian):** Etxean sortutako eraikitze- eta eraiste-hondakinak erraz kudeatzen dira ekimen pribatuko enpresen eskutik. Horrenbestez, halako azpiegitura baterako inbertsio publikoa ez dago justifikatuta.



- **Hiri-hondakinen zaborteziak:** LAP planean jasotzen diren hiri-hondakinen zaborteziak (Zarautzeko Urteta, Azpeitiko Lapatx eta Beasaingo Sasieta) plangintzaren barnean mantentzen dira "Itxitako eta itxi osteko kontrol faseko zabortezi" izenarekin. Bertan onargarriak izango dira kontrol eta zaintza erregimen horrekin bateragarriak diren erabilerak eta, ezohiko neurri gisa, interes orokorrak hala eskatzen badu, halako azpiegiturak aldi baterako berriro ireki daitezke, betiere, modu mugatuan eta aldi baterako, GIG gunean martxan jarri arte.
- **Ontziak bereizteko plantak:** LAP planean dagoeneko sendotuta dauden, eta Legazpi eta Urnietan dauden azpiegituren gainean ez da inolako aldaketarik planteatzen.

Bestalde, hasierako dokumentu estrategikoan (HDE), dokumentu horretarako abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak ezarritako edukien bidez, LAP planaren aldaketarekin lotutako helburu eta premien atariko deskribapena eta justifikazioa burutzen da, baliatzen diren bestelako plan eta programa batzuekiko elkarrekintza aztertzeaz gain. Kokapenak hautatzeko goran adierazitako baldintzatzaileak (ingurumenekoak, lurraldekoak eta funtzionalak) zehaztu ostean, indarreko LAP planean jasotzen direnekin alderatuz aldatu egiten diren azpiegituren lokalizaziorako proposatutako alternatiben deskribapena egiten da.

Ondoren, HDE dokumentuan kontuan hartzeko ingurumen arloko aldaerak hautatzen dira (klima-aldaketa, atmosfera, geologia eta geomorfologia, edafologia, hidrologia, landaredia, fauna, paisaia, ondarea, arriskuak eta trabak) eta horien arabera aldaketaren xede diren lokalizazio-alternatiba bakoitzaren eremuko ingurumen aldetiko ezaugarriak zehazten dira. Ingurumen arloko aldaerak alternatiba bakoitzarekin lotutako esku-hartzeen (lur-mugimenduak, urbanizazioa, sarbide eta eraikinen eraikuntza, trafikoa, emisio atmosferikoak, urarena, zaratarena eta usainarena, etab.) aurrez aurre ipiniz, sortutako inpaktuak balioesten dira (baita 0. alternatibarenak ere) eta ingurumenaren ikuspegitik horietako bakoitzerako hartutako irtenbidea justifikatzen da, eta dauden irizpide funtzional eta lurraldekoekiko zer-nola egokitzen diren aipatzen da.

## 2. KONTSULTAK ADMINISTRAZIOEI, ELKARTEEI ETA, ORO HAR, PUBLIKOARI

Abenduaren 9ko 21/2013 legeko 19. artikuluan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusi honek eragindako administrazioei eta interesdunei kontsultak izapidetzeko prozesua gauzatu du.

Planaren ezaugarri buruzko informazioa eta eragindako lurralde-esparrua oinarritzat hartuz, Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiak interesdun modura identifikatu ditu eta kontsulta egin die hurrengo administrazio eta erakundeei. Horiei LAP planaren aldaketaren aurrerapena eta hartako HDE dokumentua helarazi zizkien:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Ingurune Naturalaren Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Hidraulikoen Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.



- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Energia, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- IHOBE. Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Sanmarko Mankomunitatea.
- Debabarrenako Mankomunitatea.
- Debagoieneko Mankomunitatea.
- Sasietako Mankomunitatea.
- Urola Erdiko Mankomunitatea.
- Urola Kostako Mankomunitatea.
- Tolosaldeako Mankomunitatea.
- Txingudiko Zerbitzuak Mankomunitatea.
- Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.
- Añarbeko Urak Mankomunitatea.
- Kantaurikoko Ur Konfederazioa.
- Arrasateko Udala.
- Astigarragako Udala.
- Azpeitiko Udala.
- Beasaingo Udala.
- Bergarako Udala.
- Donostiako Udala.
- Eibarreko Udala.
- Elgoibarreko Udala.
- Errenteriako Udala.
- Hondarribiko Udala.
- Irungo Udala.
- Mutrikuko Udala.
- Olaberriko Udala.
- Ormaiztegiko Udala.
- Urnietako Udala.
- Usurbilgo Udala.
- Zarautzeko Udala.
- Debegesa (Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea).
- Tolosaldea Garatzen S.A. (Tolosaldeako Eskualdeko Garapen Agentzia).
- Goieki (Goierriko Eskualdeko Garapen Agentzia).
- Oarsoaldea S.A (Oarsoaldeko Eskualdeko Garapen Elkartea).
- Iraurgi Lantzen S.A (Urola Erdiko Eskualdeko Garapen Agentzia).
- Uggasa (Urola Garaiko Eskualdeko Garapen Agentzia).
- Donostiako Sustapena
- Bidasoa Activa.
- Debagaraia (Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea).
- Debemen (Debabarreneko Landa Garapenerako Elkartea).
- Goimen (Goierriko Mendi Nekazaritza Elkartea).
- Urkome (Urola Kostako Landa Garapenerako Elkartea).
- Behemendi (Donostialdea-Bidasoako Mendi Nekazaritza Elkartea).
- Tolomendi (Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkartea).
- Aranzadi Zientzia Elkartea.
- Eguzki Talde Ekologista.



- Ekologistak Martxan Gipuzkoa Talde Ekologista.
- Itsas Enara Ornitologi Elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Gipuzkoa Zero Zabor.
- Greenpeace.
- SEO Donostia.
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Gipuzkoako Merkataritza Ganbera.

Halaber, dokumentazio oro eskuragarri egon da Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiaren internet atarian ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)) publikoak oro har eta beste edozein interesdunek ingurumen arloan egokitzat jotako ekarpenak egin zitzen.

Legez ezarritako epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun hauek jaso dira:

- Eusko Jauriaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak aipatzen du ekimen honek osasunaren gainean izan ditzakeen eraginak balioesteko ezinbestekoa dela kutsadura akustiko, usaindun eta argiari, eremu elektromagnetikoei, airea iragazki, araztu eta usaina kentzeko sistemei, legionellari eta zainketa-planari buruzko informazioa izatea, eta eraikinetan energia-efizientzia kontuan hartu behar dela.
- Uraren Euskal Agentziak URA (2 idatzi) jakinarazi du ur arloko eskumenen arabera Ur Konfederazioei txostena eskatu diola. Adierazten du, aurreikuspenen arabera, proposatutako esku-hartze bakar batek ere ez duela eragin adierazgarriak sorraraziko jabari publiko hidraulikoan eta haietako babes-zonaldeetan, eta horietako bakar bat ere ez dagoela Plan Hidrologikoko babes-zona batean kokatuta, ezta uholde-zonaldeetan ere. Edozein kasutan, jabari horretan eragina duten esku-hartzeak baimena beharko dute.  
  
Hornidurari dagokionez adierazten du proiektu espezifikoei urari eta hornidurari dagozkion eskaera berriei buruzko irtenbideak barneratu beharko direla. Ildo horretatik, eskumeneko Administrazio Hidraulikoaren adierazpenaz gain, adierazten du eskaerak bermatzeko nahikoa azpiegitura eta ahalmen izatea justifikatzen duen Erakunde Kudeatzailearen txostena beharko dela, eta baliabidea egotearen edo ez egoteari buruzkoa ere bai, kasu horretan Kantauriko Ur Konfederazioak xedatutakoa beteko delarik. Saneamenduari dagokionez aipatzen du azpiegiturak saneamendu-sarera lotzeko aukera lehenesten dela, jabari publiko hidraulikora isuriak dakartzan bakarkako arazketaren aurrean.
- Eusko Jauriaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak jakinarazi du ez dela aurreikusten inolako eraginik nekazaritzako lurzoruen gainean, izan ere, aldaketa eta azpiegitura berriak dagoeneko artifizialduta dauden lurzoruen gainean aplikatzen dira. Egokitzat jotzen du LAP planaren aldaketan bi plangintzen arteko koordinazioari buruz Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planean ezarritakoa aintzat har dadila.
- IHOBE sozietateak aipatzen du LAP plana aldatzeko dokumentazioan EAEko Hiri-hondakinen Plangintzarako (2010) Jarraibideei (EAEko Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana 2020 dokumentuarekin ordezkatu direnak) buruz egiten diren erreferentziak kendu egin behar direla, eta aplikagarri den erkidegoko arau-esparruaren barnean ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua aipatu behar dela, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzekoa.
- Eusko Jauriaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du zepak heltzeko plantari eta biometanizazio-plantari dagokienez, Donostiako lurralde-eremuan, Done Jakue Bideko Monumentu Multzoaren trazaduraren gaineko eragina aztertu behar dela.



- Urola Kostako Mankomunitateak uste du LAP planaren aldaketaren parte diren dokumentu ezberdinetan ezin dela honako baieztapena jaso “*Gipuzkoako hiri-hondakinen zabortegeiak (Urteta, Lapatx eta Sasieta) itxi egin dira dagoeneko, horrenbestez, gaur egun, lurraldean itxita dauden gainerako zabortegeian bezala, itxi osteko kontrol eta zainketa fasean daude*”. Hala, eta Urtetako zabortegeari dagokionez, adierazten du dagoeneko ez direla bertan hondakinak botatzen baina ez direla oraindik zabortegei guztia zigilatzeke lanak amaitu eta, horrenbestez, ez daudela “itxi osteko kontrol eta zainketa fasean”. Horren ordez zera adieraztea proposatzen du “hondakin-isurketaren jarduna eten duten zabortegeiak”. Aurrekoa kontuan hartuz, 1481/2001 Errege Dekretuari egindako erreferentzia ere kentzeko eskatu du. Halaber, eskatu du dokumentazioan “hiri-hondakinen zabortegeiekin” lotuta dauden aipamenak alda daitezela, araudiaren arabera zuzenagoa den “hondakin ez arriskutsuen zabortegei” ipiniz.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak positiboki balioesten du LAP planaren aldaketan EAeko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Planean (2010) instalatzekoak kokatzeko barneratzen diren irizpideak kontuan hartu izana, eta egun sortutako premia eta datuetan oinarrituz beharrezkoak ez diren azpiegiturak kentzeko aukera izatea. Natura ondarearen gaineko eraginari dagokionez adierazi du zepak heltzeko plantaren lokalizazioa egokia dela, dagoeneko eraldatuta dagoen lurzoru baten gainean kokatzen delako; eta, arrazoi beragatik, Donostialdeako biometanizazio-plantarako hautatutako alternatiba egokia dela; onargarri jotzen duela Sasieta transferentziagunea hartzeko hautatutako lokalizazioa (Sasieta zabortegea), Olaberriko alternatiba hobea iruditzen bazaio ere; eta dagoeneko martxan ez dauden azpiegiturek hartutako lurren azken erabilera argitu dadila eskatzen du, ingurumen aldetiko berrezarpenen bat aurreikusten dena ala ez zehaztuz.
- Urola Erdiko Mankomunitateak adierazi du LAP planaren aldaketa Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak eskatuta egin dela. Halaber, adierazi du, dokumentazioak Lapatxeko transferentziagunea kentzeko aurreikuspena justifikatzen duela. Hori adierazteko argudio modura aipatu du ez litzatekeela iraunkorra izango mankomunitate horri zerbitzua eman diezaieketen beste azpiegitura batzuk hurbil daudelako distantzian. Haatik, mankomunitateari hondakinak kanpoko transferentziagune batera garraiatu beharrik dakarkion kaltea ez dela aztertu ulertzen du. Horri dagokionez, adierazi du, alde batetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak Lapatxen kokatzera derrigortu zuela bere burua eta, beste alde batetik, LAP plana aldatzeak ez duela justifikatzen horri buruzko irizpidea aldatzea, izan ere, egungo LAP planean mankomunitate bakoitzerako transferentziagune bat aurreikusten da, Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentrotik eta hartako Balorizazio Energetikorako Plantatik 25 kilometro baino gutxiagoko erradioan kokatutako kasuan izan ezik.

Aurrekoa kontuan hartuz, aldaketa ez dagoela justifikatuta ulertzen du, eta aldaketa sustatu duen administrazioak baitaraturiko konpromisoak ez direla betetzen, lurralde-kohesioaren printzipioa, berdintasun-printzipioa, tarifa bakarraren printzipioa eta indarrean den lurralde eta hirigintza antolamendurako araudia urratu egiten direla, eta ez dela legezkoa, 7/2008 Foru Araua eta 24/2009 Foru Dekretua aldebakarreko moduan indargabetu egiten baitira. Horrenbestez, Lapatxen aurreikusitako transferentziagunea sendotzea eskatzen dute.

- Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo Udalek antzeko arrazoibide-idatzia aurkeztu dute. Bertan adierazten dutenez, GHHKPO planaren AD dokumentuan Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa 3 azpiegiturekin (balorizazio energetikorako planta, tratamendu mekaniko eta biologikoko planta eta zepak heltzeko planta) osatzen dela ezartzen da, eta AD dokumentuak arauzko izaera duenez, ezin dira LAP plana aldatzearen bidez AD dokumentuan aurreikusten diren tratamendu bat eta tratamendu horretarako instalazio bat baztertu (zepak heltzeko planta). Hori egin ahal izateko, alde aurretik GHHKPO planaren AD dokumentua onartzen duen Foru Araua aldatu beharko litzateke.



Halaber, adierazi dute LAP plana aldatzean Arizmendiko zabortegia desagertu egiten dela eraikitze- eta eraiste-hondakinen zabortegi modura, halako hondakinen kudeaketaz enpresa pribatuak arduratzen direla adieraziz eta, beraz, horretarako inbertsio publikoak egitea ez dagoela justifikatuta. Haien ustéz ez da hondakin mota horien fluxuaren gaineko azterketarik egin eta 22/2011 Legean (3 eta 12.5 artikulua) eta 112/2012 Dekretuan (2.b eta 9.b artikulua) zehazten dena ez da kontuan hartzen. Horrenbestez, LAP planean garbigunetara doazen eta modu pribatuan kudeatzen ez diren obra xeheetako eraikitze- eta eraiste-hondakinak kudeatzeko azpiegiturak barneratu beharko liriateke.

Adierazi dute LAP planean kontuan hartu behar dela Eskuzaitzetako industrialdean finkatzeko zepak heltzeko plantak ingurumen aldetiko kostu handi samarra duela, eta hartako proiektuaren Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpenarekin neutralizatu beharko litzatekeela hori 21/2013 Legean (7.2. artikulua) xedatutakoaren arabera. Halaber, uste dute aurrekoa Eskuzaitzetako industrialde horretan bertan lekutzen den Konpost-edo biometanizazio-pantan aplikatu daitekeela.

Adierazi dute Gipuzkoako Ingurumen Konplexuaren Aurreproiektuan jasotzen denez, Balarizazio Energetikorako Plantatik datozen 40 mm-tik gorako granulometria duten zepak zabortegira igortzen direla eta, GHHKPO planaren AD dokumentuan, aldiz, abiapuntu modura ezartze dela sorrarazitako zepa guztiak herri lanetan erabiliko diren azpiproduktua direla, horientzat ez delarik zabortegirik aurreikusten. LAP planean zerbait aurreikusi beharko litzateke hondakin mota horientzako.

Aurreko guztia kontuan izanik, LAP plana bertan behera utzi eta baliorik gabe uztea eskatzen dute, eguneratu eta aldaketaren helburuak GHHKPO planean bertan jasotzen ez diren bitartean.

- Erretereriako Udalak adierazi du Sanmarkoko transferentziagunea oso jendetsua den espazio natural batean kokatzen dela (Lau Haizeta parkea), eta LAP plana aldatzeko behin betiko dokumentuan transferentziagunea hori itxi eta berehala kentzeko aurreikuspena sar dadila eskatzen du, horretarako GIG gunea funtzionamendu betean izatera itxaron gabe.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiria Berroneratzeko Zuzendaritzak jakinarazi du LAP planaren aldaketaren edukia bat datorrela indarrean dauden DOT dokumentuan eta LPP planetan zehaztutako lurralde-esparruarekin, eta haren garapena gainerako LPP planetan ezarritako zehaztapenetara egokitu beharko dela.

Jasotako erantzunetan adierazten diren ingurumen aldetiko alderdiak, zehazki ingurumenekoak direnak, kontuan hartu dira eta irismeneko dokumentu honetako atal ezberdinetan txertatu dira.

Irismeneko dokumentu hau igorri ondotik erantzun gehiago jasoko balira, organo sustatzaileari igorriko litzazkioke, hala badagokio, kontuan har daitezen LAP planaren aldaketa taxutu eta izapidetzerakoan.

### **3. INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK ETA ARAUDI-ITURRIAK**

Orain Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegituri buruzko LAP planean planteatzen den aldaketarekin LAP planean agertzen diren hondakinak kudeatzeko zenbait azpiegitura kendu eta beste zenbaiten kokapena aldatu egiten da.

Irismeneko dokumentu honetako 1. atalean aipatzen den moduan, kokapenak hautatzerakoan, funtzionaltasunarekin eta lurraldearekin lotutako irizpideak ez ezik, LAP planaren aldaketan oinarritat hartu eta kontuan izan dira LAP plana bera eratzean jadanik erabili ziren ingurumen eta iraunkortasun arloko irizpide eta baldintzatzaile berdinak, EAEko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketarako Planean (2020) horri dagokionez xedatutakoarekin osatu direnak. Irizpide





horiek guztiak egokitzat jotzen dira oraindik baliabideen kontsumoa murriztu eta instalazioek bitarteko urbanoan, naturalean, landa-eremuan eta herrigunean sorraraz ditzaketen ingurumen-eraginak arintze aldera.

Halaber, aurrekoaz gain, LAP planaren aldaketa izapidetzearekin lotutako hurrengo dokumentazioan (lurraldeko dokumentazioa eta IEE) kontuan hartuko dira Aurrerapenean (2. atala) eta aldaketaren hasierako dokumentu estrategikoan (2.4. atala) aipatzen diren estrategia, plan edo programa eta araudiek garatutako ingurumen arloko jarraibide, irizpide, xede eta helburuak, aldaketaren helburu eta zehaztapenetan, neurri handi edo txikiagoan, eragina eta zerikusia dutenak. Horri dagokionez, IHOBE sozietateak bere erantzunean adierazten duen moduan, horien artean eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzeko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuari egindako erreferentzia jaso beharko da eta EAEko hiri-hondakinen plangintzarako Jarraibideei (2010) egindako erreferentzia kendu.

#### **4. INGURUMEN-EBALUAZIOAREN GEOGRAFIA-EREMUA. EREMU ETA INGURUMEN ARLOKO ALDERDI ESANGURATSUAK**

Gipuzkoako hiri-hondakinen azpiegiturei buruzko LAP plana Gipuzkoako Lurralde Historikoan hiri-hondakinak kudeatzeko eta GHHKPO planean nahiz hartako Aurrerapen Dokumentuan jasotako helburuei erantzuna emateko beharrezkoak diren azpiegiturak lekutzen dituen lurralde-plangintzako tresna da. Horrenbestez, LAP planaren aldaketaren ebaluazioaren xede den geografia-eremua Gipuzkoan dauden hiri-hondakinen mankomunitateekin dago lotuta oro har. Mankomunitate horietan indarreko LAP planean dauden edota aurreikusten diren hondakinak kudeatzeko azpiegiturak aldatu egiten dira (kendu, birkokatu edota ordezkatu); eta modu partikular edo xehetasunezkoagoan, ebaluazio-eremua bat etorriko da LAP planaren aldaketaren xede diren hondakinen azpiegiturak finkatzeko planteatzen diren balizko lokalizaziorako alternatiba ezberdinekin.

Ingurumen arloko alderdiei dagokienez, planteatutako esku-hartzeen ezaugarri orokorrak eta Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio teknikoa kontuan izanik, eta et beste administrazio eta interesdunen aldetik jasotako erantzunak aintzat hartuta, egiaztatzen da Aurrerapenean eta LAP plana aldatzeko HDE dokumentuan behar bezala hartu direla kontuan hasiera batean azpiegiturak ingurumenari dagokionez egokiro kokatzea ahalbidetzen duten irizpideak, eta ingurumen aldetiko interes bereziko baliabide eta espazio nagusiak identifikatzeari dagokionez eta planaren aplikazio-eremuan dauden ingurumen arloko balizko arazoei dagokienez lehendabiziko hurbilketa egokia egiten dela, lurralde-plangintzarako tresna horri dagokion irismena eta xehetasun-maila kontuan hartuz.

Hurbilketa hori aldaketaren hastapen fase honetan aintzatetsi eta aztertu diren alternatiba eta esku-hartze ezberdinetarako burutu da, eta izapidetzearen hurrengo faseetako dokumentuetan ere jaso eta sakondu egin beharko, hala alternatiba horien kasuan, nola, hala badagokio, planteatu edo sor daitezkeen berrien kasuan.

#### **5. AINTZATESTEN ALDERDIAK ETA INGURUMEN-IKERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENA**

Ingurumen-ikerketa estrategikoa LAP planaren aldaketari berez dagozkion dokumentuen artean barneratuko da, eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legeko IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, gutxienez, eta baita Plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ingurumen arloko iraunkortasun-txostenerako ezartzen den edukia ere.



Eranskin horietan zehaztutako atalak garatzerakoan txosten honetako aurreko ataletan adierazten joandako alderdiak eta, hala badagokio, aurkezten diren kontsulta eta arrazoibideei erantzunez administrazioek, instituzioek eta interesdunek problematiko modura hautemandako ingurumen arloko alderdiak jorratu beharko dira, eta honakoa kontuan izanik:

#### **5.1. Planaren aldaketaren premiaren eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programa batzuekiko duen harremana.**

IEE ikerketan LAP plana aldatzeko premia eta aukerari buruzko justifikazio argudiatua barneratu beharko da, aurrekarien eta lortu asmo diren helburuen deskribapen batekin batera.

LAP planaren aldaketari dagozkion helburu eta esku-hartzeek plan horrekin zerikusia izan dezaketen gainerako plan eta programetako helburu eta zehaztapenekin duten koherentzia eta harremana zehaztu beharko da. Xedea baterako helburuak agerian ipini eta horiek lortzeko eginahala sustatzea izango da, edo beste plan edo programa batzuetako helburu eta jardute-ildoekin gainjarpen, gatazka edo bateraezintasunak ikusiko balira esku-hartzeko balizko alternatibak ebaluatzea.

Horri dagokionez, eta irismeneko dokumentu honetako 3. atalean aipatu den moduan, gutxienez, aurrerapenaren 2. atalean eta HDE dokumentuaren 2.4. atalean jasotako plan, programa, estrategia eta araudiak hartu beharko dira kontuan, edo plana taxutzen den bitartean beharrezkotzat jo daitekeen beste edozein.

#### **5.2. Eragindako eremuaren inguruabarrak eta ingurumen arloko arazoak.**

IEE ikerketan hondakinen azpiegiturak finkatzeko (haien alternatibak barne) planteatzen diren balizko lokalizazio ezberdinetako ingurumen arloko inguruabarren deskribapena barneratu beharko da, LAP plana aldatzearen eragina jasan dezaketen ingurumen arloko aldagai nagusiei dagokienez egun haiek duten egoerari buruzko diagnostia eginez.

Horri dagokionez, HDE dokumentuan (3.2.2.2. atala) erabilitako ingurumen arloko aldagaiak eta aztertutako lokalizazio ezberdinetako ingurumen arloko inguruabarrei buruzko informazioa (4.2. atala) ingurumen-ikerketan estrategikoaren atal honetara gaineratzeko modukoak direla uste da. Dena den, osatu eta sakondu egin beharko dira LAP planaren aldaketa izapidetzeko prozesuan zehar sor daitekeen edozein informazio adierazgarriren eta azkenik aztertu eta hartzen diren lokalizazio eta esku-hartze ezberdinen arabera.

Ingurumen arloko inguruabarrei buruzko azterketa honetan ingurumenari so proposatutako kokalekuetan, hala badagokio, agertzen diren presio eta arazo nagusiak hartuko dira kontuan, arazo horiek LAP planaren aldaketan planteatutako esku-hartzeetan zer-nolako eragina duten balioeste aldera, hots, horien ondorioz arazoak larriagotu egiten diren edo, aitzitik, ingurumen arloko arazo horiek hobetzeko abagunea dakarten. Hasiera batean, zirkunstantzia hori aldaketak indarreko LAP planean dauden edo aurreikusten diren azpiegiturak kentzea planteatzen dituen kokalekuetan aplikatzekoa izango litzateke.

#### **5.3. Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidearen justifikazioa.**

HDE dokumentuan jasotzen denez, IEE ikerketan LAP planaren aldaketako helburuei erantzuna emateko bideragarriak diren alternatiba tekniko, ekonomiko eta ingurumenekoak proposatu beharko dira. Horien artean "0 alternatiba" barneratu beharko da derrigorrez (LAP planean ezarritako plangintza mantentzea).



Kontuan izanik aldaketaren helburu nagusia hondakinak kudeatzeko beharrezkoak diren kudeaketa-azpiegitura zenbaiten kokapena zehaztea dela, alternatiben ikerketan, funtsean, instalazio horiek aintzatetsitako kokaleku ezberdinetan izan dezaketen eraginari buruzko azterketa alderagarria egingo da. Horretarako, proposatutako kokalekuetan kudeaketa-azpiegiturak finkatzearekin lotutako eraginak balioetsiko dira funtsean, baina era berean, ahal den heinean, plangintzari dagokion irismena eta xehetasun-maila orokorra dela medio, haien funtzionamendurekin lotutakoak kontuan hartuz. Hala, alderdi zuzenak (zarata, usainak sortu eta askatzea, hondakin-urak isurtzea, etab.) nahiz zeharkakoak (adibidez, sortutako trafikoarekin lotutako ingurumen arloko eraginak) hartu beharko dira kontuan.

Kudeaketa-azpiegiturak kokatzeko aukera ezberdinak alderatzean, beharrezkoak diren zerbitzuetako azpiegiturarik (ibilgailuan trafikoa, uraren hornidura eta saneamendua, energia elektrikoaren hornidura, etab.) dagoen ala ez hartuko da kontuan. Aztertutako kokapenetan zerbitzu-sare berriak sortu beharko balira, horien eraikuntzak eragindako inpaktuak aintzatetsi beharko dira.

Azkenik, hautatutako proposamenak justifikatu egingo dira ingurumen arloko kalitate orokorrarekiko eta lurraren iraunkortasunaren eta lur horrek duen baitaratzeko ahalmenaren harreman- eta egokitze-maila kontuan hartuz eta, aldi berean, erreferentziatzeko dokumentu honetako 3. atalean iraunkortasunari eta ingurumena babesteari buruz ezartzen diren irizpide eta helburu orokorreko koherentzia ere aintzatetsiz. Azken hautaketa ez baletor bat ingurumenaren ikuspegitik aukera onena denarekin, erabaki hori justifikatu egin beharko da.

Edozein kasutan, alternatiben azterketan erabilitako metodologia azaldu beharko da eta ingurumen arloko faktoreak zein neurritan hartu diren kontuan jaso beharko da eta, hala badagokio, irizpide anitzeko ikuspuntu batetik faktore tekniko, funtzional eta ekonomikoak zein neurritan hartu diren kontuan. Horri dagokionez, balioetsitako alderdi bakoitzean azkenik hautatutako alternatiba ez badator bat ingurumen arloko balioespen onenarekin, hura hautatzearen arrazoiak azaldu beharko dira.

#### **5.4. Hautatutako zehaztapen eta esku-hartze ezberdinek ingurumenean dituzten eragin adierazgarrien identifikazio eta balioespena.**

Irismeneko dokumentuaren 5.2. atalean zehaztutako ingurumen arloko aldagai berdinak oinarritzat hartuz, azkenik hautatutako kokapenen gainean birkokatu edota ordezkutzen diren kudeaketa-azpiegiturak finkatzearen ondorioz sorrarazitako ingurumen-eraginak identifikatuko dira. Horri dagokionez, kudeaketa-azpiegiturak berez sorrarazitako eraginak ez ezik, hala badagokio, instalazioetan hornitu beharreko zerbitzuetako azpiegiturak sorrarazitakoak hartuko dira kontuan, esate baterako, sarbide-errepideek, hornidura-instalazioek, ura kanporatzeko eta araztekoek edota energia elektrikoaren hornidurakoek eragindakoak. Halaber, indarreko LAP planean dauden edo aurreikusten diren azpiegiturak kentzea dakarten LAP planaren aldaketako zehaztapenek sorrarazitako ingurumen arloko eraginak balioetsiko dira modu orokorragoan.

Ikerketan, era berean, planteatutako instalazioek funtzionamendu fasean zehar sorrarazitako ingurumen arloko eraginaren atariko identifikazio edo balioespenerako hurbilketa bat barneratu beharko da. Eragin horien xehetasuneko balioespena instalazioetako proiektu bakoitzari dagokion ingurumen arloko izapidetzean zehar burutuko bada ere, planean funtzionamendu-fasean kokalekuaren eta potentzialki eragindako alboko lurren gaineko baldintzei buruzko mendekotasuna eta eragin zuzenagoak erakusten dituzten esku-hartzeekiko hurbilketa bat burutu beharko da, planean horiek arintzeko beharrezkoak diren babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak planteatzean kontuan har daitezten.



Identifikatutako eragin bakoitza bere tamaina eta intentsitatean ezaugarritu eta balioetsi beharko da. Horretarako, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren III. eranskinean ezarritakoa nahiz ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legeko VI. eranskinaren 8. atalean adierazitako terminologia erabili ahal izango da. Horretarako, eragina behar bezala deskribatzeko eragin-adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzaileak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta eraginari dagokionez gutxieneko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, eta baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Azkenik, egokiago jotzeagatik eragin-ebaluazioa prozesuaren ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen diren alderdiak arrazoitu egingo dira.

### 5.5. Ingurumen-integraziorako neurriak.

IIE ikerketan, identifikatutako ingurumen arloko eraginak ikusirik, LAP planaren aldaketan aurreikusitako esku-hartzeen ondorioz ingurumenarentzat adierazgarritzat jotako eragin bakoitza prebenitu, murriztu eta, ahal den heinean, indargabetzeko neurriak zehaztuko dira; eta, era berean, eragindako eremuetan ingurumenari dagokionez kalitatea areagotzeko lagungarri direnak planteatuko dira.

Proposatutako babes-neurri, neurri zuzentzaile eta konpentsazio-neurrien zehaztasun-neurria bat etorriko da aldaketaren zehaztapen-eskalarekin eta, horien xehetasunezko inguruabarrak azpiegitura bakoitzari buruzko proiektuan agertu badaitezke ere, lurraide-plangintzaren eskala honetan gutxieneko babes-neurri orokor zenbait zehaztu beharko da, azpiegitura bakoitzaren proiektuetara derrigorrez gaineratu beharreko ingurumena babesteko irizpide eta jarraibideekin batera.

Neurri horien artean garrantzia berezia izango dute biodibertsitatearekin eta giza osasunarekin nahiz azpiegitura bakoitzak edo azpiegitura mota bakoitzak urari, zoruari, energiari eta hondakinei dagokienez izan behar duen erabilera iraunkorarekin lotutako eraginak babestu eta zuzentzearekin lotutakoak, ingurumenari dagokionez babes-maila handia bermatze aldera.

Horri dagokionez, besteak beste, ingurumen-integraziorako neurriak planteatzeko hurrengo irizpideak hartu beharko dira kontuan, beste batzuen artean:

- Hondakinen lokalizazioak eta garraioa txertatzea, irisgarritasuna erraztu eta horrekin lotutako eraginak murrizteko xedez.
- Landaredian eta intereseko faunak eragina arintzea.
- Azpiegiturak berrezarri eta paisaiaren ikuspegitik integratzeko planen premia, bereziki dimentsio handieneko haien kasuan, lur-mugimendua eskatzen dutenen kasuan, eta ikusizko irisgarritasun handiagoa dutenen kasuan.
- Arrisku geoteknikoko eta uholde-arriskuko zonaldeak zedarritzea.
- Azpiegiturak eta energia-efizientzia handiago baterako, lurzoruaren okupazio txikiago baterako eta aprobeitxamendu-ahalmen handi baterako nahiz materialak berreskuratzeko irizpideekin lotutako elementu eta zerbitzuak diseinatzea.
- Hondakinen tratamendurako eskuragarri dauden teknologia onenak (MTD edo BAT) aintzatestea, gas, hauts, usain edota likido-isurien emisioa arindu eta arazteko xedez.
- Azpiegituren eragin akustikoa (pantailaratzeak, zarataren aurreko antolaketa, etab.) aintzatestea horrekin lotutako arazoak ematen dituzten zonaldetan.



- Hondakin-urak jasotzeko instalazioak aurreikustea eta instalazioetan ura aurrezteko eta energia kontsumitzeko sistemak ezartzea.
- Hala badagokio, lurzoru kutsatuei buruzko 1/2005 Legean ezarritako irizpide eta prozedurak aplikatzea.
- Argi-kutsadura ekiditeko neurriak ezartzea.
- Eta abar.

#### 5.6. Planaren eraginak ingurumenaren ikuspegitik ikuskatzeko programa.

LAP planaren aldaketan proposatutako esku-hartzeekin lotuta, ikuskatzeko programaren helburua plana behar bezala aplikatzen dela, hartako helburuak betetzen direla eta ingurumenari dagozkionez kalitatea mantentzen dela bermatzea da, eta baita proposatutako neurri zuzentzaileak eta konpentsazio-neurriak betetzen direla bermatzea da, eta, hala badagokio, aurreikusi gabeko ingurumen arloko eraginak hautematea eta horiek ebazteko beharrezko neurriak ezartzea.

Horren harira, ikuskapenerako programak hauek zehaztuko ditu: kontrol-helburuak eta hura gauzatzeko fase ezberdinak; jarraipena behar duten ingurumen arloko sistema, alderdi edo aldaerak eta horiek neurtzeko adierazleak (kuantitatiboak edota kualitatiboak), parametro zenbakarrietarako muga-maila edo erreferentziazko mailen ezarpena; eta planean, hartako fase ezberdinak gauzatzen diren bitartean, aurreikusten diren ingurumen arloko helburuak eta neurriak zein neurritan betetzen diren. Halaber, haien xehetasunezko azterketa plangintza-prozesuko ondorengo fasetara edo garapeneko proiektuetara atzeratzea derrigorrezkoa duten alderdiak zehaztu ahalko dira.

Horri dagokionez, aldaketa ikuskatzeko programak indarreko LAP planerako ezarritako ikuskapenerako programa egokitu ahal izango du, aldaketan barneratutako zehaztapen eta azpiegitura berrien arabera, nahiz haren onarpenaren ondorioz sortutako araudiak zehaztutako ingurumenaren babesarekin eta kalitatearekin lotutako helburuen arabera. Esparru horrekin bat etorriz, irismeneko dokumentu honetako 6. atalean, ikuskatzeko ingurumen-adierazleen zerrenda orientagarri eta ez banakatua eskaintzen da.

#### 5.7. Alternatiben nahiz prebentziozko neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio-neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.

LAP planaren aldaketaren zehaztasun-maila kontuan hartuz, hurbilketa orokor bat egingo da eta alternatiben azterketa ekonomiko bat gaineratuko da, ahal den heinean, ikuspegi ingurumenezko eta sozial batetik eratorritako kanpoko kostuen azterketa barneratuz.

Halaber, atal honetan aldaketa aplikatzeak ekar ditzakeen eragin negatiboak prebenitu, murriztu edo arintzera bideratutako neurrien kostuen estimazio bat barneratuko da, hartatik eratortzen diren ingurumen arloko kostuak barnean sartzea bermatze aldera. Halaber, neurri horiek finantzatzeko iturriak barneratu beharko dira, administrazioetako aurrekontuen kargura baitaratuko direnak eta, hala badagokio, beste sustatzaile batzuek baitaratu beharrekoak bereiziz.

#### 5.8. Laburpen ez teknikoa.

Ingurumen-ikerketan estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta publiko orokorrak ulertzeko modukoa emanez, aurreko puntuetan jasotako informazio oro ezagutarazte aldera. Orobat, dokumentazio grafikoa eta dibulgaziozko elementuak barneratzeko ahalegina egingo da, plana hobeto ulertu eta publikoak parte har dezan.



## 6. INGURUMEN-EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPENERAKO PROGRAMAN AINTZATESTKO ADIERAZLE Kuantitatibo edota KUALITATIBOEN PROPOSAMENA

Ingurumen-ebaluaziorako eta ikuskapenerako programarako hautatutako adierazleak zehazterako orduan, alde batetik, LAP planaren aldaketan ezartzen diren helburu orokorrak eta ingurumenezkoak betetzen direla egiaztatzeko aldagai zenbait eta, beste alde batetik, haren garapenean sor daitezkeen ingurumen arloko eraginen aurreikuspenekin lotutako aldagaiak jasoko dira. Horrela, ingurumen arloko helburuekiko ez-betetzeak edo aldaketa gertatuko balira, neurri zuzentzaile gehigarriak gaineratu ahal izateko.

Ingurumen-adierazleak:

- Adierazitako ingurumen arloko helburu eta irizpideekin lotutakoak izan behar dira, LAP plana eratu eta aplikatzean parte hartzen duten eragileen erantzukizunak finkatzea ahalbidetzeko egiazko kudeaketa-tresna modura funtziona dezaten.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora-serie jakinetan aztertzeko modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira, haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz ulertzeko xedez. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Erabilgarriak izan behar dira eta, ahal den heinean, haiek eskuratzeko informazio-iturri kopurua ez da handiegia izan behar.

Jarraian, antolaketaren alternatiba ezberdinen iraunkortasuna eta aldaketaren ingurumen arloko alderdien integrazio-maila balioesteko gida modura erabiliko diren ingurumen-adierazle zenbait proposatuko dira. Proposamen hori iradokizun modura ulertu behar da LAP planaren aldaketako IIE ikerketa idatzi dutenentzat.

- Lurzoruaren erabilera iraunkorra:
  - Lurzoruaren artifizialtze-intentsitatea: aldaketa garatu aurretik eta ondoren azpiegiturek okupatutako azalaren portzentajea.
  - Berreskuratutako espazio degradatuen portzentajea eta hektarea kopurua.
  - Nekazaritza-ahalmen handiko lurzoruaren azalera, aurreikusitako esku-hartzeak gauzatu aurretik eta ondoren.
- Urak:
  - Ur eskaera guztira:
  - Uren kalitate-indizea.
  - Isuriak ur kontinentaletara eta uraren erabilerekin eta hondakin-uren sorrerarekin lotutako efizientzia eta intentsitatea.
- Aireak:
  - Espero daitezkeen kutsatzaile garrantzitsuenen indizea (berotegi-efektuko gasen dagozkienak barne).
  - Airearen kalitate-indizea.



- OME erakundeak gomendatutako mailen gaitetiko eraginpean dagoen biztanleriaren portzentajea.
- Energia:
  - Azpiegituren urteko kontsumo elektrikoa.
- Biodibertsitatea:
  - Eragindako interes komunitarioko habitataren edo intereseko landarediaren azalera.

## **7. INFORMAZIO ETA KONSULTARAKO MODALITATEAK**

Abenduaren 9ko 21/2013 legeko 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoa betez, LAP planaren aldaketa onartzeko prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barnean, informazio eta kontsultarekin lotutako esku-hartze hauek burutuko dira:

- a) Eragindako herri-administrazioei eta interesdunei LAP planaren aldaketari dagokion hasierako bertsioa eta ingurumen-ikerketa estrategikoa kontsultatzea.

LAP planaren aldaketari dagokion hasierako bertsioa eta ingurumen-ikerketa estrategikoa jendaurrean ipintzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean nahiz Ingurumen eta Lan Hidraulikoen Sailaren bitarteko elektronikoetan iragarkia ipiniz, gutxienez 45 egun izanik haiek aztertu eta dagozkion oharra egiteko.

Aurrekoarekin lotuta, eragindako herri-administrazio eta interesdun modura hartuko dira Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiak kontsultatutako administrazio, entitate eta erakundeak, irismeneko dokumentu honetako 2. atalean zerrendatzen direnak.

## **8. INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK**

Abenduaren 9ko 21/2013 legeko 24. eta 25. artikuluetan eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, LAP planaren aldaketa behin betikoz onartu aurretik, ingurumen-adierazpen estrategikoa igortzeko eskatuko da (ingurumen-memoria 211/2012 Dekretuko terminologian). Gainera, eskaera horrekin batera ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa gaineratuko da, hauen bidez osatzen dena:

- LAP plana aldatzeko dokumentu ezberdinak, ingurumen-ikerketa estrategikoa barne.
- Espedientearen kopia, dagokion arloko araudiaren arabera beharrezkoak diren txostenak eta kontsulta eta jendaurreko izapideetan egin izan ahal diren arrazoibideak nahiz emandako erantzunak barne.
- Laburpen-dokumentu bat, LAP planaren aldaketaren azken proposamenean ingurumen arloko alderdiak, ingurumen-ikerketa estrategikoa eta hura irismeneko dokumentura zer-nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza eta horiek zer-nola aintzatetsi diren deskribatuz.



Bestalde, plana izapidetzen den bitartean eta kontsulta eta jendaurreko izapidearen ostean, ingurumenaren gainean ebaluatu ez diren eragin adierazgarriak ekar ditzaketen aldaketak adostuko balira eta, edozein kasutan, 211/2012 Dekretuaren 4. artikuluan adierazten diren egoeretako bat emango balitz, kontuan hartu beharko da, Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko zaiola. Horretarako, aldatutako plan edo programako alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazioa helarazi beharko zaio.

Donostia, 2017ko uztailak 4

**INGURUMENeko ZUZENDARI NAGUSIA,**

**Sin.: FELIX ASENSIO ROBLES**

